

Gomendatutako liburua:

-Crispoliti, Enrico (ed.). "Storia e critica del futurismo". Biblioteca Universale Laterza. Roma. 1986.

FUTURISMOA

Marinettik Poesia Futuristaren Manifestua idatzi zuen eta geroago, 1914an, Futurismo plastikoaren teorigile bilakatu zen. Umberto Boccioni "Pittura, Eskultura Futurista" idatzi zuen. Marinetti-k hauxe esan zuen: "Cantaremos el amor al peligro, el hábito de la energía, la osadía.... Declaramos que el esplendor del mundo se ha enriquecido de una nueva belleza: la belleza de la velocidad. Un coche de carreras, con la carrocería adornada de grandes tubos como serpies de explosivo aliento..., un coche rugiendo, que parece correr como una ametralladora, es más hermoso que la Victoria de Samotracia".

Manifestua argitaratu ondoren Marinetti hitzaldietan eta manifestuetan parte hartzen ibili zen etengabe, "antitradizio futurista" horretan oinarriturik testuak propaganda gisa erabili zituen. Marinettik tradizioaren aurkako borroka, makinismoa eta modernotasuna aldarrikatu zituen. Ideia nazionalistak defendatu zituzten, geroago Mussolini-ren faxismoari lotuz. Teorigilearen ustez, bizitza, artea eta ekintza bildu behar zituzten, horregatik eman zioten hainbesteko garrantzia propaganda eta teoria-testuak argitaratzeari. Dena dela, futurismoa mugimendu literarioa ez zela esan daiteke, ezta piktorikoa, ezta artistikoa ere, baizik eta bere garaiko gertaerak interpretatzeko gai izan zen mugimendu filosofiko berri bat.

Urtebete geroago Milanen, Marinetti-ren futurismoa pinturaren praktikara eraman nahi izan zuten, horregatik, "Pintore Futuristen Manifestua" argitaratu zuen, Boccioni, Severini, Carra, Balla eta Russolo-k sinatuz.

Objektuak bere argi inguruarekin zuen erlazioa mamitu eta forma-indarra eta kolore-indarra lortu zituen. Bi idazki horien artean Futurismoaren oinarria eta gailurra aurkitzen ziren. "Pittura Futuristaren Manifestu Teknikoa"-n eta aurreko manifestuetan futurismoaren norabidea ezarri zen: imitazioa baztertu orijinaltasunaren mesedetan; errealitatearen irudikatzearen gaitzespena; higiduraren errepresentazio-sistemak lantzea eta hori lortzeko objektuak zenbait planutan zatitzen ziren, bide horretan puntillismoa eta kubismoa bide egokienak izan ziren; bizitasun sentazioa; mugimenduaren fase desberdinen aldi bereko errepresentazioa. Zentzu honetan, Severini-k hauxe esan zuen: "elegimos concentrar nuestra atención sobre cosas en movimiento, porque nuestra sensibilidad moderna está particularmente calificada para apoderarse de la idea de la velocidad. Pesados y potentes coches zumbando en las calles de nuestras ciudades, bailarines reflejados en el mágico ambiente de la luz y el color, aviones volando por encima de las cabezas de la muchedumbre entusiasmada.. Esas fuentes de emoción satisfacen nuestra idea de un universo lírico y dramático mejor que dos peras o una manzana"; mugimenduak eta argiak gauzatuz kanpo itxura sunsitzea eta akademizismo ororen kontrako borroka etengabea bultzatzea; Italiako aurreko kultura bazterrean uztea; abiaduraren eta dinamismoaren bidez gizarte eta arte berri bat eraikitzea; iraganarekiko mirespena apurtzea; futuristen arteko lokarria pinturaren esparrutik at zegoen, egitarau politiko eta estetiko orokor baten inguruan bildu ziren eta jendeaurreko iharduerak antolatu zituzten (dantza, antzerkia, dekorazioa... eta beste zenbait arte-saio antzerkietan eta kalean); teknologiaren bidez bizimodu berri bat erakutsi nahi izan zuten; politikaren aldetik, nazionalismo erradikala eta hedapen

kolonialista bultzatu zituzten. Ildo horrekin jarraituz, Marinetti-k hauxe esan zuen: “Queremos glorificar la guerra, única higiene del mundo, el militarismo, el patriotismo, el gesto destructor de los libertarios, las ideas bellas por las que morir”. Horrexegatik, ekintza politikoak eta artistikoak beharrezkoak zirela ulertzen zuten. Atzera bota zituzten balio tradizional guztiak, politikoak nahiz kulturalak.

Beste testu teoriko osagarri batzuk argitaratu ziren, erakusketak edota beste abagune batzuk zirela eta. Lehen erakusketa futurista Milanen antolatu zen 1910.ean eta hurrengoa 1911.ean. Baina inportanteena Parisekoa izan zen, 1912an “Bernheim Jeune” galerian, han kide guztiek hartu zuten parte, Balla izan ezik.

Kubismoak Futurismoarekin zituen harremanak eta, batez ere, futurismoari egindako maileguak nabariak izan ziren. Kubismoan objektuaren elementu guztien aldibereko irudikapena bilatu zen bitartean, futuristek bizitzaren “aldiberekotasun dinamikoa” landu zuten. Futurismoaren pintura-mintzaira beste mugimendu piktoriko batzuetan oinarritu zen. Adibidez, Severini-k eta Russolok puntilismoa eta kubismoa erabili zituzten.

Haien ustez, dena mugitu eta dena bizkortasunez gertatzen zen. Aurreko irudiak ez ziren finkoak, agertu eta desagertu egiten zitzaizkien etengabe. Erretinan mugitzen ziren gauzak ugaltzeaz gain, desitxuratu egiten ziren eta bibrazioen antzera jarraitzen zuten. Mugimenduak ez zuen luze iraun, Lehen Mundu Gerrak eta Boccioni artista nagusiaren heriotzak, gainerakoek gogoz ez jarraitzea ekarri zuen.

Laualdi bereiz daitezke:

1-1909an hurrengo manifestuak idatzi ziren: “Futurismoaren Manifestua”; “Pintura Futurista” eta “Pintura Futurista. Manifestu Teknikoa”. 1912an Boccionik argitaratu zuen “Eskultura Futurista”.

2-1912-1916 urteetako aldia. Mugimenduaren benetako hasiera eman zen. Aurrekoak prestaketak baino ez ziren izan. Aurkitzen ditugun artistak hurrengoak dira, batik bat: Carlo Carra, Umberto Boccioni, Russolo, Balla eta Severini.

3-1916-1928 bitarteko aldia. Aldi honetan mugimenduaren azken urratsak eman ziren. Hurrengo artisten lanak ikus daitezke: Gerardo Dottori, Fortunato Depero eta Enrico Prampolini.

Mugimendu honetan iharduera desberdinak landu zituzten: 1- antzerkia (antzerki-testuak, eszenografiak, jantziak eta gau-jaiak antolatu zituzten. Hemen joera propagandistikoa nabaritzen da. Askotan eskandaluak bilatu zituzten); 2- Poesia eta literatura, hitzak, pintura eta marrazketak bilduz; 3- liburu-objektuak; 4- zinema; 5- sukaldaritza; 6- musika; 7- Altzariak; 8- Arte Postala: Gutuna artearen euskarria da; 9- Moda; 10- Argazkigintza; 11- Jostailuak, haurtzaroz ez ahazteko eta umeenganaino futurismoa heldu arazteko; 12- Publizitatea; 13-Tapizgintza.

GAIARAKO ARTELAN INTESGARRIAK

UMBERTO BOCCIONI

-“Barrea” (1911)

-“Idolo modernoa” (1911)

-“Aldi bereko ikusmenak” (1911)

- “Kaleko indarrak” (1911)
- “Bolumen horizontalak” (1912)
- “Materia” (1912)
- “Gizakiaren gorputzaren dinamismoa” (1913)
- “Txirrindulariaren dinamismoa” (1913)
- “Futbolariaren dinamismoa” (1913)
- “Botila batean hedapena espazioan” (1912)
- “Jarraitasunaren forma bereziak espazioan” (1913)

GINO SEVERINI

- “Tabarin-en dantzaren Jeroglifiko dinamikoa” (1912)

CARLO CARRA

- “Galli anarkistaren hileta” (1910-1911)

LUIGI RUSSOLO

- “Iraultza” (1911)

GIACOMO BALLA

- “Kaleko argia” (1909)
- “Hankak mugimenduan” (1912)
- “Gurpilen estudioa mugituz” (1912)
- “Abiaduraren lerroak” (1913)
- “Kotxe baten sartze dinamikoa” (1913)
- “Abiadura abstraktua” (1913)
- “Argien plastizitatea” (1913)
- “Zurrumbiloa, espazioa eta bolumen-formak” (1914)
- “Mercurio Eguzkiaren aurretik joanez eta teleskopio baten bidez ikusirik” (1914)
- “Plastikozko eraikuntza zaratarekin eta abiadurarekin” (1915)
- “Banderak Aldare nazionalean” (1915)
- “Guda” (1915)
- “Zientzia versus obskurantismoa” (1920)